





ISEI - IVEI

**Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO
BIGARREN HEZKUNTZA BUKATUTA IZATEA**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Edizioa: 2014ko otsaila
© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOAK

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
Rs8.1 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak. (Iturria: INE).	6
Rs8.2 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak.	7
Rs8.3 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2013. urtea.	8
Rs8.4 taula: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 28 herrialdeetan.	9
Rs8.4 grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 28 herrialdeetan. 2007 eta 2013. urteak.	10
Rs8.5 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 28 herrialdeetako datuak. 2013. urtea.	11
Rs8.6 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak. (Iturria: EUSTAT).	12

**DERRIGORREZKOAREN ONDOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA
(HNSN 3A, 3B ETA 3C) GUTXIENEZ LORTU DUEN 20-24 URTE BITARTEKO
BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.**

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako¹: 20-24 urte bitarteko biztanleen % 85ek gutxienez goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak (HNSN² 3) bukatuta izatea.

Oso garrantzitsua da biztanleria helduaren ehuneko handi batek goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lor dezan, biztanleria orokorraren hezkuntza-maila, eta bereziki biztanle langileen hezkuntza-maila, igotzeko.

Hezkuntza-maila horrek ematen duen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzara joateko izaera propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daiteke, gazteei goi mailako ikasketan eta lan munduan integratzeko behar diren giza eta adimen heldutasuna eta gaitasun teknikoa ematen baitizkie. Kontuan izan behar da enplegu-tasa handiagoa dela Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatu dituzten pertsonen artean ikasketa horiek bukatu ez dituztenen artean baino.

Gaur egun ezagutzen oinarritutako gizartean egoki parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzak ematen den oinarria edukitzea. Izan ere, ELGAko herrialdeetan goi mailako bigarren hezkuntza gutxieneko hezkuntza-maila bezala hartzen da lan-merkatuan postu egoki eta lehiakor bat aurkitzeko.

Europar Batasuneko 28 herrialdeetan 2013n batez beste goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatuta dituzten biztanleen ehunekoa % 81,0 zen, eta horrek adierazten du finkatutako helburua (% 85) ez dela lortu. 2004. urteaz geroztik izandako bilakaera geldoa baina etengabea izan da, hamarkada osoan 3,6 puntu baino ez baita hazi. Hala ere, zenbait herrialdek –Kroazia (% 94,2), Eslovenia (% 91,5), Eslovakia (% 91,2), Txekiar Errepublika (% 90,9) eta Lituania (% 90,0)– aise bete dute helburua. Europar Batasuneko 28 herrialdetik 15 herrialdek bete dute helburua, 2013n. Ehunekorik apalena duten herrialdeen artean Espainia (% 63,8), Portugal (% 70,1) eta Danimarka (% 71,8) daude. 2004tik 2013ra, Danimarkak, Poloniak eta Txekiar Errepublikak jaitziera izan dute.

Euskadin, 2004-2013 aldian, derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua lortu duten adin horretako biztanleen ehunekoa nahiko egonkor mantendu da, 2009an (% 76,9) eta 2011an (% 78,5) izan ezik 2013n (% 84,7) lortu arte, ia % 85 helburua bete arte. Sexuaren aldagaia kontuan hartzen badugu, 2013n graduatuen ehunekoa gizonezkoen artean % 82,9 dela ikus dezakegu, eta emakumezkoen artean % 86,4. Beraz, emakumezkoek lortu dute % 85 helburua. Hala ere, aipatu behar da sexuen arteko aldea nabarmenki jaitsi dela hamarkadan zehar, 2004n 7,8 puntukoa izatetik 2013n 3,5 puntukoa izatera pasa baita.

¹ Helburu hau ez da 2020rako helburu bezala hartzen; aurrerantzean eskola uzte goiztiarrari buruzko informazio osagarria eskaintzen duen adierazle bezala hartuko da.

² Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz).



Espainiaren kasuan, graduatuen ehunekoa igo egin da 2004tik (% 61,2) 2013ra (% 63,8), igoera autonomia erkidegoetan ezberdina izan bada ere. Guztietan ehunekoaren igoera bat izan da, Galizia (% 65,7) 3,1 puntu; Madril (% 66,7) eta Ceuta eta Melilla (% 48,7) biak 1,9 puntu eta Kanariak (% 58,3) 0,1 puntu jaitsi direla, izan ezik. Autonomia erkidegoetako batez bestekoa 2013n, arestian aipatu den bezala, % 63,8koa zen. Ehunekorik handiena (% 84,7) Euskadik zuen, eta bigarrena (% 81,0) Nafarroak. Apur bat beherago Kantabria eta Aragoi daude (% 79,5 eta % 72,2, hurrenez hurren). Beste muturrean, beheranzko hurrenkeran, Ceuta eta Melilla (% 48,7), Balear Uharteak (% 54,8) eta Extremadura (% 56,0) daude.


Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde nabariak ikusten dira kasu guztietan. Hartara, 2013. urtean, Europar Batasuneko herrialdeetan, eta baita autonomia erkidegoetan eta Euskadin ere, goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lortu duten emakumezkoen ehunekoa gizonezkoen ehunekoa baino handiagoa da kasu guztietan. Espainiaren kasuan, gauza bera gertatzen da autonomia erkidego guztietan, Aragoi izan ezik. Sexuen arteko batez besteko aldea Espainian 10,6 puntukoa da; alderik handiena Extremaduran 21,6 puntukoa eta Gaztela-Mantxan 18,2 puntuekin gertatzen da, eta alderik txikiena Aragoi (-0,2 puntu) eta Madril (0,4 puntu). Europar Batasun osoa kontuan hartzen badugu, 2013. urtean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko batez besteko aldea 5,4 puntukoa da. Alderik handiena duten herrialdeak Portugal (12,9 puntu), Zipre (11,7 puntu) eta Danimarka (11,6 puntu). Alderik txikiena duten herrialdeen artean Austria (0,1 puntu), Bulgaria (0,6 puntu) eta Txekiar Errepublika (1,0 puntu) daude.

**Rs8.1 taula eta grafikoa:**

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak³.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	81,5	75,7	87,6	11,9
2001	81,4	76,4	86,5	10,1
2002	80,9	78,6	83,4	4,8
2003	78,3	73,2	83,7	10,5
2004	81,5	77,7	85,5	7,8
2005	81,0	76,3	86,0	9,7
2006	81,2	75,3	87,3	12,0
2007	80,8	75,3	86,6	11,3
2008	80,1	75,0	85,4	10,4
2009	76,9	69,3	84,7	15,4
2010	80,1	78,8	81,4	2,6
2011	78,5	76,9	80,1	3,2
2012	80,0	77,6	82,3	4,7
2013	84,7	82,9	86,4	3,5

¹ Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).


³ Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira. Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Rs8.2 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak⁴.

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Espainia	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0	59,9	61,2	61,7	62,8	63,8
Andaluzia	56,4	54,2	52,8	53,1	52,3	54,0	53,0	53,0	53,6	55,2	56,9	56,5
Aragoi	68,0	71,3	70,1	70,8	67,9	66,4	67,3	68,7	67,2	64,6	68,1	72,2
Asturias	72,4	64,6	66,9	72,2	67,0	70,2	72,8	70,8	68,6	70,2	71,4	70,0
Balear Uharteak	54,2	52,2	51,1	51,9	51,0	47,6	48,2	46,5	49,7	55,4	53,1	54,8
Ceuta eta Melilla	53,7	53,6	50,6	46,2	39,4	37,5	43,2	50,3	42,9	52,6	45,9	48,7
Errioxa	69,7	63,2	59,8	67,8	64,8	62,1	59,3	61,4	63,5	59,8	66,9	68,3
Euskadi	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1	78,5	80,0	84,7
Extremadura	57,3	55,7	51,9	53,9	54,6	55,4	53,6	52,9	56,6	57,2	53,1	56,0
Galizia	66,8	69,2	68,8	69,2	67,5	68,0	66,2	63,4	66,9	67,7	64,9	65,7
Gaztela eta Leon	70,0	67,6	70,2	66,6	67,1	67,4	67,1	66,0	66,2	60,7	66,4	70,6
Gaztela-Mantxa	55,8	55,5	55,6	55,0	54,2	54,1	51,7	55,0	54,9	55,5	58,1	60,4
Kanariak	59,3	59,1	58,4	59,3	54,4	52,1	55,5	57,1	56,1	53,8	57,3	58,3
Kantabria	67,1	65,3	67,0	71,8	69,6	67,5	70,4	65,3	63,3	68,9	76,7	79,5
Katalunia	65,0	60,9	59,4	61,2	65,7	61,2	59,4	61,4	61,7	62,7	64,9	64,6
Madril (Erk.)	72,0	72,2	68,6	67,9	66,4	67,2	65,4	66,1	68,9	70,2	68,7	66,7
Murtzia	56,0	52,9	51,7	53,0	51,9	51,8	51,0	54,1	56,2	57,6	60,1	60,2
Nafarroa (F. Erk.)	75,6	75,0	73,7	77,4	82,9	78,3	77,3	74,4	76,6	80,2	79,4	81,0
Valentziako E.	58,1	58,4	58,6	61,0	61,8	61,4	59,1	56,7	59,5	59,3	59,2	64,8



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2013. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).

⁴ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.




Rs8.3 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak⁵. 2013. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	63,8	58,5	69,2	10,6
Andaluzia	56,5	51,7	61,6	9,9
Aragoi	72,2	72,3	72,1	-0,2
Asturias	70,0	64,8	75,4	10,5
Balear Uharteak	54,8	51,7	57,9	6,2
Ceuta eta Melilla	48,7	43,7	53,0	9,4
Errioxa	68,3	62,3	74,4	12,1
Euskadi	84,7	82,9	86,4	3,5
Extremadura	56,0	45,5	67,1	21,6
Galizia	65,7	57,2	74,5	17,3
Gaztela eta Leon	70,6	62,5	79,2	16,7
Gaztela-Mantxa	60,4	51,6	69,8	18,2
Kanariak	58,3	53,9	62,8	8,9
Kantabria	79,5	74,2	85,0	10,8
Katalunia	64,6	56,5	72,8	16,3
Madril (Erk.)	66,7	66,5	66,9	0,4
Murtzia	60,2	52,9	67,8	14,9
Nafarroa (F. Erk.)	81,0	77,8	84,4	6,6
Valentziako E.	64,8	59,6	70,3	10,7

¹ Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "Guztira" irizpidearen arabera.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).

⁵ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoak laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Rs8.4 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 28 herrialdeetan.

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EB (28 herrialde)	77,4	77,6	78,1	78,3	78,7	78,8	79,2	79,6	80,3	81,0
EB (27 herrialde)	77,2	77,5	78,0	78,2	78,5	78,7	79,1	79,5	80,1	80,9
Belgika	81,8	81,8	82,4	82,6	82,2	83,3	82,5	81,6	82,8	83,1
Bulgaria	76,1	76,5	80,5 d	83,3	83,7	83,7	84,4	86,7	85,8	86,0
Txekiar Errepublika	91,4	91,2	91,8	91,8	91,6	91,9	91,9	91,7	90,9	90,9
Danimarka	76,2	77,1	77,4	69,4 b	68,9	69,9	68,6	70,0	72,0	71,8
Alemania	72,8	71,4 b	71,9	72,9	74,1	73,7	74,4	75,3	75,6	76,8
Estonia	80,0	82,8	82,2	81,0	82,0	82,6	83,6	82,8	81,3	84,2
Irlanda	85,3	85,8	85,8	86,8	87,7	86,4	86,3	86,7	87,2	89,4
Grezia	83,0	84,1	81,4	82,6	82,6	82,6	83,6	83,9	85,5	86,7
Espainia	61,1	61,8	61,8	61,4	60,3	60,3	61,5	62,0	63,0	63,8
Frantzia	82,9	83,3	83,2	82,4	83,8	83,6	83,3	83,9	84,5	86,4
Kroazia	93,5	93,8	94,6	95,3	95,4	95,2	95,7	95,6	94,8	94,2
Italia	72,8	73,4	75,5	76,3	76,5	76,3	76,3	76,9	77,6	77,9
Zipre	77,6	80,4	83,7	85,8	85,1	87,3	86,2	87,6	87,8	89,5
Letonia	79,5	79,8	81,0	79,6	79,8	80,6	80,3	80,6 b	84,1	85,7
Lituania	85,5	87,5	87,4	88,3	88,8	86,8	87,0	87,7	89,3	90,0
Luxenburgo	72,5	71,1	69,3	70,9	72,8	76,8 b	73,4	73,3	71,5	76,9
Hungaria	83,5	83,4	82,9	84,0	83,6	84,0	84,0	83,3	83,5	84,3
Malta	51,0 p	60,0 b	59,3	66,8	67,5	68,9	73,2	74,2	75,7	76,1
Herbehere	75,0	75,6	74,7	76,2	76,2	76,6	77,6 b	78,2	79,0	78,2
Austria	85,8 d	85,9	85,8	84,1	84,5	86,0	85,6	85,4	86,6	87,4
Polonia	90,9	91,1	91,7	91,6	91,3	91,3	91,0	90,1	89,8	89,7
Portugal	49,8	49,4	49,9	53,6	54,6	55,9	59,1	64,6 d	67,8	70,1
Errumania	75,3	76,0	77,2	77,4	78,3	78,3	78,2	79,6	79,6	79,7
Eslovenia	90,5	90,5	89,4	91,5	90,2	89,4	89,1	90,1	90,1	91,5
Eslovakia	91,7	91,8	91,5	91,3	92,3	93,3	93,2	93,3	92,7	91,2
Finlandia	84,5	83,4	84,7	86,5	86,2	85,1	84,2	85,4	86,3	85,9
Suedia	86,0	87,5	86,2	86,5	86,7	87,6	87,2	87,2	86,4	86,2
Erresuma Batua	77,0	78,1	78,8	78,1	78,2	79,3	80,4	80,1	81,8	82,9
Euskadi*	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1	78,5	80,0	84,7


(b) Segidaren haustura. (d) Definizio desberdina. (p) Behin behineko balioa. *Euskadirako INEk emandako datuak erabili dira.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.4 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 28 herrialdeetan. 2007. eta 2013. urteak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2013. urtea" irizpidearen arabera. *Euskadiko datuak INEK eman ditu.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.




Rs8.5 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 28 herrialdeetako datuak. 2013. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (28 herrialde)	81,0	78,4	83,8	5,4
EB (27 herrialde)	80,9	78,3	83,7	5,4
Belgika	83,1	80,0	86,3	6,3
Bulgaria	86,0	85,7	86,3	0,6
Txekiar Errepublika	90,9	90,4	91,4	1,0
Danimarka	71,8	66,1	77,7	11,6
Alemania	76,8	75,1	78,6	3,5
Estonia	84,2	79,7	88,8	9,1
Irlanda	89,4	87,9	90,9	3,0
Grezia	86,7	83,5	89,9	6,4
Espainia	63,8	58,4	69,4	11,0
Frantzia	86,4	84,7	88,1	3,4
Kroazia	94,2	92,8	95,8	3,0
Italia	77,9	73,6	82,3	8,7
Zipre	89,5	83,4	95,1	11,7
Letonia	85,7	80,9	90,7	9,8
Lituania	90,0	88,3	91,7	3,4
Luxenburgo	76,9	72,6	81,3	8,7
Hungaria	84,3	82,9	85,8	2,9
Malta	76,1	72,6	79,9	7,3
Herbehere	78,2	74,4	82,0	7,6
Austria	87,4	87,3	87,4	0,1
Polonia	89,7	86,0	93,6	7,6
Portugal	70,1	63,7	76,6	12,9
Errumania	79,7	78,5	81,0	2,5
Eslovenia	91,5	89,1	94,4	5,3
Eslovakia	91,2	90,5	92,0	1,5
Finlandia	85,9	84,7	87,1	2,4
Suedia	86,2	84,6	87,9	3,3
Erresuma Batua	82,9	80,9	84,8	3,9
Euskadi*	84,7	82,9	86,4	3,5

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. *Euskadira INEren datuak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehenezko handienetik txikienera ordenatua, "Guztira" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.


**Rs8.6 taula eta grafikoa:**

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C), gutxienez, lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Guztira eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

(EUSTAT) Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak, Eurostat metodologiarekin (BJA) Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestak ateratakoak. Inkesta hiru hilabetez behin gauzatzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta datuak hiruhilabetekoetako datuetatik ateratako urteko batez bestekoa dira.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2001	82,1	77,7	86,5	8,8
2002	81,2	76,9	85,7	8,8
2003	81,0	75,1	87,0	11,9
2004	80,2	74,2	86,4	12,2
2005	87,8	85,8	90,2	4,4
2006	85,0	82,0	88,3	6,3
2007	85,3	81,5	89,5	8,0
2008	81,6	78,1	85,6	7,5
2009	79,8	75,6	84,2	8,6
2010	79,1	76,6	81,8	5,2
2011	82,6	81,1	84,2	3,1
2012	82,1	78,6	86,0	7,4
2013	85,5	86,1	85,0	-1,1

¹ Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: EUROSTAT(13-06-2014) eta EUSTAT (Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestako datuak - BJA)